

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko urriaren 2a / 265. zenbakia

- **HERRIKO KONTUA Euskaltegia martxan** 05
- **KIROLAK Etxeberriak errekorra** 08
- **AIAKO BERRI Armendigaineko gunea** 11
- **ELKARRIZKETA Manex Rekarte** 13
- **IRITZIA Oier Garmendia** 18
- **HERRITARRA Gurru eta Sukia** 25



Manex Rekarte,
komunikatzaile

Manex Rekarte izar izan da irailean, hainbat kontugatik: ireki berri duen sex-shopa, Zinemaldia, eta irratian esatari hasi delako.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventasagasti@euskalnet.net
Bizkaiakalea, 20-1 B
20800 Zarautz

Igo zaitetz haize berrietara!



Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com



Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net


"JUAN LARRAZPU" ERAKUNTZAK, S.L.
(Jon Anai)

Baserietako igelbarizta eta agumzko estrukturatan aditua

Exteen berrikuntzak:

- toxadak
- relaxak
- akabidex
- jatu gelak...

Tf: 965 718 696 (Jon Anai) Estropelari, 30-38 Orio



AMILIBIA
CENTZIOLEK, S. L.

kinol partuetan proiektu eta instalazioak

guri mailako lehiaketarako arrazo-ontziak

Olaslagunagazua zuzua, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com



LURDES
MARINERIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

ZATOZ GURERA!



Toberna Jatebrea

ORIO

KANPIN ETXEKO JANARIA

udako denboraldiaz kanpo ere irekita

EGUNEKO MENUA: 9,50€
(kafea barne)

Edo bestela...
Ogitartekoak, razioak eta plater konbinatuak

OILASKOA ERRETA ERAMATEKO

943 89 20 68
Deitu lasai

ASTEBURUKO MENUA: 15,50€

(a) Babarrunak bere sakramentuekin eta oilaskoa patatekin.
(b) Marisko paella eta legatza saltsan.

Postrea, kafea eta ogia, ardoa, sagardoa edo ura bi aukeretan.


APARKALEKUA BADUGU

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldeaPat Cowie, Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta**Publizitatea**

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Testuen zuzenketaMiren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta**Ale honetako laguntzaileak**Errikotxia bertso elkarte,
Oier Garmendia eta
Joseba Orella**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

BanatzzaileakEkiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orio)
Ainize Sayago (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berremen
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Patxi Etxeberriari

IRAILAREN 27AN, LASARTE-ORIAKO OMENALDIAN, HERRIKOTXIAKOEK JARRITAKO BERTSOAK

Gaztetatik itsasora
ta han sarea zabaldu...
harrapatu eta saldu.
Arrandegian ere berdin
sobratzen zena salbu (bis).
Zapo, legatz ta bisigu
ekarri dizkiogu
asmatu ote dugu;
oraindik ere arrain freskorik
ez zuen jango seguru.

IBAI ESOAIN

Arrantzale izan da Patxi
lehen esan dute horrela,
sardina eta antxo bakarrak
ez du berdintzen sabela.
Hamar, hamaika edo hogeji
Bat ez da aspertzen bela:
Hiru hitzetan esan behar banu
Patxin bertsoa bezela.

EGOITZ EIZAGIRRE

Pescaderia Inaxi hura
Patxi eta Inaxirena zan
bi urreburu urraburutan
inoiz erre inoiz saltsan
hegan dakien hegaluzea
beti hitzaren arrantzan
Lasarten bada bixigu eder bat
Orio estilora brasan
ari ta ari beti kantari
Kantauri zaharreko plazan.

XABIER SUKIA

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

| | |
|----------------------|----------|
| Modulu bat | 12,00 € |
| Bi modulu | 24,00 € |
| Hiru modulu | 36,00 € |
| Lau modulu | 48,00 € |
| Sei modulu | 72,00 € |
| Zortzi modulu | 96,00 € |
| Orrialde erdia | 120,00 € |
| Orrialde osoa | 204,00 € |

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

| | |
|----------------------|----------|
| Modulu bat | 16,00 € |
| Bi modulu | 31,00 € |
| Hiru modulu | 47,00 € |
| Lau modulu | 64,00 € |
| Sei modulu | 95,00 € |
| Zortzi modulu | 127,00 € |
| Orrialde erdia | 174,00 € |
| Orrialde osoa | 306,00 € |

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK

Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Iraila Orion

Irailaren 13an, Oriora joan nintzen estropadak han ikusteko asmotan, eta, bidez batez, halako jai seinalatu batean herrian egoten den giroa ezagutzeko gogoz. Jakina denez, ordea, arraunlarien lan eskasa dela tarteko, oso giro tristea aurkitu nuen herriko kaleetan, balkoi askotan zapi horiak zintzilik egon arren.

Ostegunean Petrileko Peñako jendearekin egon nintzen. Tartean zen Benito Lertxundi, eta arraunari buruz hark esplikatu zizkidan gauza batzuk oinarri hartuta, poema hau idatzi dut:

IRAILA ORION

Irail hilabete tristea
Orioko kaleetan
Horiz jantzita daude balkoiak
Hutsaren langarra
zutoinetan.

Kontxako itsasoak negarrez
Utzi du traineruen tosta
Uher daude lehorrean begiak
Arraunaren pozoina irentsita.

Zuri-beltzeko arrantzale
zaharrak
Kamisetak koloredunez doaz
Joan zirenak eta datozenak
Erriorearen arnasean aurkitzen
baitira.

Bandera dakartenean herrira

Malkotan dago enparantza
Banderarik ageri ez denean
Ez da itzaltzen esperantza.

Sartuko dituzte arraunak
Uraren azal hilezkorrean
Itsasoa menderatuz
Denbora gaudituko
dutelakoan.

Badatoz eta bagoaz
Ilunabarraren begietan
deseginda
Kresalaren jostundegian
lamiek
Harilkatu zuten misterioan
urtuta.

Bandera dakartenean herrira
Malkotan dago enparantza
Banderarik ageri ez denean
Ez da itzaltzen esperantza.

PAKO ARISTI

Somaliako piratak

Irakurri dut PPK Somaliari buruzko galdera bat planteatu duela Legebiltzarrean, EAJ-rekin sintonian, eta iruditzen zait garrantzizkoa dela han gertatzen denaren berri izatea.

Inork ez du erakutsi inolako sentiberatasunik Somaliari eta Somaliako uretan gertatzen ari denarekiko; eta are gutxiago EAJk eta PPK. Eskuinak enpresen interesak bakarrik ikusten ditu Somaliari eta

ezkutatu egiten ditu hango itsaso eta kostaldeetan egindako basakeriak.

Zergatik daude 'piratak' Somaliako itsasertzean? Bai lehen eta bai orain, lapur eta kriminal batzuk haien urak pozoitzen dituztelako eta haien arrantza-baliabideak ustiatu. Somalian dabiltzan arrantza-ontzietako tripulazioak gaizkile batzuen biktima gisa azaltzen dituzte hemengo komunikabideek. Nazioarteko justizia, halakorik baldin badago, ez da inon ageri (ikus honako artikulua: '¿Quiénes son los piratas en Somalia?' eta 'Somalia, la mentira europea sobre los piratas. Misteriosos buques europeos vierten residuos nucleares en la costa de Somalia, provocando cientos de muertos mientras saquean los recursos de las costas somalíes', biak Johann Hari egilearenak, rebelion.org webgunean; eta 'Somalia envenenada', Antumi Toasijé egilearena, Público egunkarian argitaratua, 2009-05-24an).

Ez legoke gaizki Legebiltzarrean honetaz hitz egitea eta horretarako aukera ematen du arrantzaleei elkartasuna erakusteko planteatu den galderak.

Badirudi, aurrerantzean, euskal atun-ontzietan zain-tzaile armadunak izango direla, tiro egiteko prest; hau da

'itxura txarra' daukan edozein hiltzeko baimenarekin. Nork administratuko du hiltzeko erabakia? Abusuak edo hanka-sartzeak gertatzen badira, frogak itsaso hondoan gertatu dira. Nori axola zaio? Aste honetan bertan euskal atun-ontzi batek alarma jo zuen, ontzi somaliar bat atzetik zihoakiolako, eta Espainiako armadako ontziak, Somaliako uretan dabilenak, lasaitu egin behar izan zituen, arrantza-ontzi bat zela esanez.

Arrantza-ontzi bakoitzean nazioarteko behatzaile bat jarri beharko litzateke eta zain-tzaile horien esku-hartze guztiak grabatu; horrela egiten ez bada, ontzi horietan soldatuek hiltzaileak doazen susmoa zabalduko da.

Nire iritzia, zerbaiterako balio badu, honako hau da: euskal ontziek alde egin beharko lukete Somaliako uretatik; eta, geratzea erabakitzen badute, beren gain hartu beharko lukete segurtasunaren gaia.

IÑAKI GARCIA ARANBARRI
EZKER BATUKO ZINEGOTZIA

Orioko Ogia

ORILOGI

OPIL OKINDEGIA
Frontal ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

HERATEGIA
PATXI OLIDEN
ORDAITEGIA

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripa, odolki, txokora, txorizo, kroketak...

PATXI OLIDEN

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiaroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Korciak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 41
e-mail: harnepil@harnepil.net

Automóviles ZARAUTZ

OTROEN ZERBITZU OFIZIALA

Itxasua, berrak
eta la berrak
2003

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 84 87 16

EUSKALTEGIAN IZENA EMATEKO EPEA BUKATU DA, BAINA MINTZALAGUNERAKO ZABALIK DA ORAINDIK

Euskaraz hitz egiten ikasteko eta ikasten laguntzeko aukera

Hogeitik gora lagunek ikasiko dute aurten AEK-k Orioko Udalaren laguntzarekin antolatu duen euskaltegian eta, aldi berean, Urola Kostako Udal Elkarteak mintzalagun programa jarri du martxan berriz ere.

Beste behin, Zarauzko AEK-k euskara ikastaroak emango ditu Orion, Orioko Udalaren laguntzarekin. Ikasteko diru-laguntzak emateaz gain, antolakuntza lanak hartu ditu Udalak bere gain eta Zarauzko AEK-k irakasleak jarriko ditu ikastaroa aurrera eraman ahal izateko.

Eskolak Orioko Herri Ikastolako ikasgeletan emango dira, astean hiru egunetan, eta bi orduko saioak izango dira. Urrian hasi eta ekainera arte iraungo du ikastaroak eta bi maila emango dira: lehenengoa hasiberrientzat izango da eta bestea, berriz, EGA atera edota alfabetatu nahi dutenentzat.

Kronika hau idazteko momentuan oraindik bukatu gabe zegoen matrikulazio aldia; baina badirudi bi taldeak sortuko direla: hasiberrien ikastaroan hamabi bat lagunek eman dute izena eta gehienak kanpotarrak dira.

EGA eta alfabetatze taldean, aldiz, zazpi bat herritar zeuden izena emanda edizioa ixterakoan; gutxienez, zortzi lagun behar dira.

Izena eman dutenetako batzuk aurreko ikasturtean antolatutako Aisa ikastaroan aritutakoak dira.

330 euro balio du ikastaroak, kurtso osorako, baina klase guztien %80ra joaten direnek Udalaren diru-laguntza jasoko dute ikastaroa bukatutakoan, Euskara Zerbitzuan eskatuz gero.



Iaz, kanpotar askok ikasi zuen AISA etorkinentzako euskara ikastaroan.

KARKARA

MINTZALAGUN PROGRAMA

Ingurua erdalduna dutelako edota inguruko euskaldunekin harremana lehendik ere erdaraz egina dutelako, eus-

kaldunberri askok arazoak izaten dituzte euskaraz hitz egin eta praktikatzeko. Egoe-ra horretan daudenek euskaraz hitz egiteko aukera izan

dezaten, Urola Kostako Udal Elkarteak ikasturte honetan ere martxan jarri du Mintzalagun egitasmoa.

Aipatutako programa aurrera ateratzeko jende euskalduna behar da, euskaldun berriekin batera adina, zale-tasunak, eta disonibilitatea kontuan hartuta laupabost laguneko taldeak osatzeko. Arruntena astean behin taberna batean elkartzea bada ere, kontzertuetara joatea, antzezlanak ikustea, ikastaroak egitea... ere normala da, azken finean, euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzea baita garrantzitsua.

Parte hartu nahi dutenek, emailez, urolakosta@aeq.org, edo telefonoz, 943 86 02 48 eta 943 13 01 75, eman dezakete izena. Horretarako azken eguna urriaren 8a izango da.

Alimo!

Pozgarria izan da euskaltegiaren aurtengo matrikulazio-kanpainaren emaitza. Jende askok eman du izena ikasten hasteko eta horrek erakusten du euskararen premia sentitu dutela hemen bizitzeko. Ez da gutxi.

Ikasleen zerrenda begiratzen hasi eta munduarekin egin dut topo: Demba, Aurelie, Yamna, Xochilt, Lucia... Mundu txiki bat Orioko euskaltegiko gelan, kolore bizi ugarikoa.

Orain hasiko duten bide horretan ez dira denak azken muturreraino iritsiko; baina egingo duten ahalegina eskertu nahi diet guzti-guztiei. Espero dut euskara ikastea gozamen-bide izatea berentzat.

BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIEK IGANDEKO GIROA BIZITUKO DUTE

Musean hasi eta bazkaltzen bukatuko dute Goiko kalean

Pilliku plazako ingurua musikaz eta dantzaz beteko da urriaren 9tik 11ra, Goiko Kaleko festak hortxe baititugu ate joka.

Festa berri asko sortu da azken aldian Orion; baina, lehendik datorrelako-edo, arrakastatsuenetakoak dira Goiko Kalekoak. Gogor ari dira lanean dagoeneko festa batzordekoak. Alde zaharra karkara atzea izateari utzi eta herriaren zilborra izango da, berriz, urriaren 9tik 11ra.

Ostiralean, 20:00etan hasiko dira festak eta, ordu horretatik aurrera, jai giroa izango da nagusi. 22:00etan, mus txapelketa hasiko da. Izen-emaitea, ordea, 22:25 arte izango da. 22:00etan, baita ere, bingo benefikoa izango da Justina-enean, eta bildutako dirua kanpotarren euskaltegiko matrikulak ordaintzen laguntzeko erabiliko da. Bingoa bukatutakoan, Arturo txiletarraren musika emanaldia izango da. Larunbatean, berriz, goizetik hasiko dira parrandan. 11:00etan, helduen bizikleta proba izango da, urtero bezala, baina aurtentzirkuitua aldatu dute. Inskripzioa ordu erdi lehenago izango da Justina-enean. 17:00etatik aurrera, haurrek gozatzeko mementua helduko da. Lehenengo, gaztetxoenentzako emanaldia izango da, gero, 18:00etan, zinta jokoa eta, 18:30ean, txokolatada elizako zimitorioan. Zinta joko-



Bazkarian, Eizagirre eta Gaztelumendi ariko dira bertsotan.

KARKARA

Larunbateko helduen bizikleta probak ibilbide berria izango du aurtentz

rako nork bere bizikleta eraman behar du. 19:00etan toka hasiko da, eta 20:00etan erromeria. Iluntzean, zimitorioan, *Axe Brasil* dantza taldeakikus-

kizun ederra emango du. Igandean 10:00-11:30 jasoko dira tortillak txapelketarako, tabernan, eta dastaketa eta sari banaketa 13:00etan izango da, Benta Zaharreko Mutiko Alaietan kantuz lagunduta. Lehenago, bertso saioa izango da, 12:30ean, Pillikun. Bukatzeko, herri bazkaria egingo da Aldapan, 10 euroren truke, eta Egoitz Eizagirre eta Unai Gaztelumendi ariko dira bertsotan. Han ere, Benta Zaharrekoek alaituko dute bazkalostea.

LABUR

TRIKITIXA

Beldarrainek bi sari irabazi ditu

Trikitulari Gazteen Txapelketetan parte hartzen du Ander Beldarrainek 16 urtez azpiko kategorian. 14 urte besterik ez dituen arren, bi sari irabazi zituen joan den irailaren 20an Hernanin.

Beldarrain hirugarren izan zen soinua jotzen, Leire Beldarrain lagun zuela, eta panderoa joz irabazle izan zen Edurne Errandonea soinu-jolearekin batera egindako saioan. Uztailaren 12an Oialumen ere panderoa joz irabazi zuen.

Ander ezaguna da Loretxu inguruan ibiltzen den jendearentzat, bertako sukaldean jarduten baita askotan trikitixarekin.

LANAK

Hasi dira Ortzaika txukuntzen

Abuztuan hasi ziren Ortzaika auzoko lanak eta 6 hilabetez arituko dira bertan Eguzki Eraikuntzak enpresakoak. Errepide ingurua txukundu, oinezkoentzat pasabideak egin, argiztatzea hobetu, saneamendu hornidura egokitu... asko dira egin beharreko lanak eta, guztira, 1.270.960 euro gastatuko ditu Udalak, Espainiako Gobernuak lanpostuak sustatzeko emandako diru laguntza baliatuta.



UDAKO BALORAZIOA POSITIBOA IZAN ZEN MERKATARIEK ETA UDALAK EGIN ZUTEN BILERAN

Interpretazio zentroa zabalik gaurtik Iturriaga Jauregian

Gaur, urriaren 2a, Iturriaga Jauregian sortutako interpretazio zentroa irekiko dute. Hiru solairuko etxea da Britenea, eta Done Jakue bideari buruzko informazioaz gain, turismo bulegoa ere izango da.

Bidearen historia, jatorria, artea... garai bateko erromesek Bidean izan duten garrantzia eta gaurkoek aurki dezaketenaren inguruan antolatuta daude Iturriagan irudiak eta argibideak panel handietan. Ikusi nahi duenak 2 euroko sarrera ordaindu beharko du. Bisitak ordubete inguru iraute du eta ordutegia hau izango da neguan: asteartean 16:00-19:00 izango da zabalik; asteazkenetik larunbatera, ordea, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00. Igandeetan, goizeko ordutegia mantenduko da. Udan, egunero goiz eta arratsalde izango da irekita.

UDAKO BALORAZIOA

Balorazio positiboa egin zuten merkatariek eta udaleko teknikari eta zinegotziek bileran.

Alde batetik, Txu-Txu trenaren balantzea egin zuten eta oso gustura agertu ziren denak. Publizitatearekin, saldutako bidai-txarteekin eta Udalak merkatariei emandakoarekin –merkatariek trenan erabiltzea erabaki zuten– gastuak kitatu dituzte.



Interpretazio zentroan, panel handietan, Bideari buruzko hainbat argibide ikusi daitezke.

KARKARA

Guztira 13.431 txartel saldu dira, horietatik 217 bonoak. Horrela, lortutako diru sarrera 6.607,50 eurokoa izan da. Horri horretarako zeuden 15.000 euro eta publizitatearena gehituta, kostatutako 24.000 euroak kitatu dira.

Stock azokarekin ere oso pozik ziren, nahiz eta igandean jende gutxiago zebilela eta kexu azaldu ziren eta nola hobetu pentsatzen ari diren.

Dena den, gustura ziren lortutakoarekin eta hurrengo urtean errepikatzeke asmoz dira merkatariek. Txu-Txu tre-

na ere berriz jartzeko intenzioa dute, eta zerbitzua egun gehiago eskaintzea ere pentsatu dute.

NEGUARI BEGIRA

Negurako fideltasun txartel bat sortzeko ekimena martxan jarri nahi dute merkatariek; baina, horretarako, bankuekin hitz egin behar dute.

Bestalde, sanikolasetatik aurrerako larunbatetan zerbitu egiteko gogo agertu dira. Alde batetik, Olentzero ekarriko dute eta erakusleihoko dekoratuko dituzte. Iñaki Gar-

Merkatariek gustura azaldu ziren Stock Azokak eta Txu-Txu trenak herrian izan duten harrerarekin

cia EBko zinegotziak Gabonetako zuhaitza jartzea proposatu zuen. Megafonia bidez Gabon kantak jartzea ere proposatu zen batzarrean.

lle anagindgia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO



RAMIRO

erreportaje digitalak

943 83 10 48

ODITZ
Primera calidad de cigarrillos
gigante de 100 unidades
tel. 943 83 00 89



Jendea txaloka, zutik, jarri zuen Idoiak lehen altxaldiaren ondoren.

KARKARA

IRAILAREN 26AN IZAN ZEN SAIKERA IKASTOLAK ANTOLATUTAKO FESTAN

120 kilokoa mendean hartu zuen Etxeberriak

Arratsaldeko 18:30ean jarri zieten hitzordua Orioko Herri Ikastolakoei, Heldu!koei erakustaldia hasteko. Ordurako, ikastola aurreko plaza jendez gainezka zen.

Erakustaldia harriaren inguruan egin zuten Heldukoek. Idoia Etxeberriaz gain, bi bikote izan ziren harria jasotzen eta, amaitzeko, giza-proba egin zuten oriotarrek eta usurbildarrek.

MARKA BERRIA

Harriaren aurrean jarri eta gutxi behar izan zuen Idoiak bertaratutakoen harridura sortzeko.

88 kiloko koparekin hasi zuen beroketa, eta ia behartu gabe egiten zituen altxaldiak. Segidan, 100 kiloko errektangularrari heldu zion eta hura ere bizkarrean berdintzeko, aparteko indarrik

egin gabe ari zela ikusten zen haren aurpegian. Pello Saizar prestatzailea eta Joseba Ostolaza harri-jasotzailea zituen alboan Etxeberriak eta haiek ondo berotzeko eta lasai hartzeko eskatu arren, 16 urteko neska, egoskor, 120 kiloko harria eskatu zuen.

Aurrean jarri eta berehala egin zion kolpe. Harriari heldu, epaileak txistua jo eta 14 segundotan harria bizkarrean. Epaileak eskua gora altxatzearekin batera, sekulako txalo zaparrada entzun zen ikastola aurreko plazan.

Baina ez zen hor bukatu neska gaztearen erakustaldia. Bost minutuko txanda zen eta denbora sobera zuen aurretik. Beste hiru altxaldi eman zizkion harriari eta bosgarrenean irrist egin zion, bukatzen ari zenean. Hainbeste kilo jasotzen gazteena da oriotarra eta gauza handiak egin ditzake hemendik aurrera.

Pellok eta Josebak lasai hartzeko esan arren, 16 urteko neska, egoskor, 120 kiloko harria eskatu zuen

Emakumeetan errekorra Mari Jose Sardonek du 131,4 kiloko harriarekin, baina urnietarrak 36 urte ditu dagoeneko. Beraz, Idoiak, bide honetan jarraituz gero, Sardonen markak hautsi ahal izango ditu.

BESTE PROBAK

Ondoren, Iurgik eta Rubenek 75 kiloko harriari 40 altxaldi eman zizkieten; Josebak eta Aimarrek 100ekoari, 100; eta giza-proba Oriok irabazi zuen, 25 plaza, 3 zinta eta metro bat eginda.

LABUR

ARETO FUTBOLA Denboraldia gaizki hasi dute

Mailari eusteko asmoarekin dira aurten ere Orioko Tabernakekoak, baina ez dira ondo hasi, izan ere lehen partida 5-0 galdu zuten Concepto-Createchen aurka.

Asteburu honetan jokatu dute etxeko lehen partida. Aski ezaguna duten Astraburuko taldea izango da bisitari.

SURFA Txapelketa urriaren 3-4an izango da

Joan den astean egitekoak baziren ere, aste honetara atzeratu dute olatu falta dela-eta surf txapelketa.

Dena den, Windguruaren aurreikuspenek asteburu honetarako ere itsasoa bare egongo dela esaten dute.

ARRAUNA Denboraldia bukatu da

Kontxako zaplastekoaren ondoren, ez du batere gaizki bukatu Orioko traineurrak denboraldia.

Bermeoko estropadan bigarren egin zuten irabazlarendik sei segundora eta Portugaleten 4. izan ziren, kale txarra tarteko.

Gipuzkoako Traineuren Liga irabazi dute horrenbestez oriotarrek. Gipuzkoan jokatzen diren estropada ofizialak hartzen dira kontuan, eta Oriok lortu du puntu gehien.

Bibandera izango dira, beraz, traineruaren aurtengo palmaresean.

BIXIO LOIDI ETA JOKIN GOZATEGI | ERGOMETROAN ARRAUNEAN 24 ORDUKO ERREKORRAREN JABEAK

“Hasiara batean ez genuen errekorra egiteko asmorik”

Abuztuaren 29an jarri ziren ergometro gainean eta 24 orduz aritu ziren arraunean, bi orduro txandakatuz eta munduko errekorra egin zuten.

Nondik atera zen errekorra egitearen ideia?

J.G.: Orain dela bi urteko sanpedroetan 3 lagun 12ren kontrako proban zortzi orduz aritu nintzen ergometroan. Gustura geratu ginen denok eta afaritan Bixiori komentatu nion: behin zortzi ordu eginda, zergatik ez ditugu egiten hamabi bion artean?

B.L.: Bai, berak tentatu zidan. Hasiara batean ez genuen errekorra egiteko asmorik, baina, gero, interneten begira jarrita, errekorrak bazirela ikusi genuen.

J.G.: Gainera, proba egin baino hilabete bat lehenago, bi ingelesek ere egin zuten eta 313 km eskasetan utzi zuten marka. Haiek adinkategoriaz gazteagoak ziren eta guk, egindakoa eginda ere, bagenekien errekorra egingo genuela. Orduan hasi zen errekorrena garrantzia gehiago hartzen.

Nolako prestakuntza egin duzue?

B.L.: *Xarpas*, Juan Angel izan dugu entrenadore eta hiru hilabete eta erdi inguru eduki gaitu... baino fin-fin, hark esandako guztia egin behar.

J.G.: Bai... Gero berak komentatu zigun, proba horren luzea eta gogorra zenez, komenigarri izango litzatekeela mediku bat ere alboan izatea, eta berehala Ederrekin akordatu ginen. Bi aldiz pentsatu gabe onartu zuen eta, egia esan, bai *Xarpas* eta bai Eder primeran portatu dira gurekin.



Errekorra egin ondoren, semeekin.

KARKARA

Baten batek pentsatuko du negozioa egin dugula; baina, tonto-tonto, gastua ere ekarri du
–Jokin Gozategi–

B.L.: Aita eta ama bezalakoak izan dira guretzat.

Zergatik aukeratu zenuten Orioko estropada eguna?

J.G.: Arraunzaleontzako hori izaten delako Orion egunik garrantzitsuenak. TKEko hamabi traineruak hemen,

Aurrekoan berak tentatu zidan eta oraingoan nire txanda da. Ea zer erronka okurritzen zaidan niri
–Bixio Loidi–

Orion Jai! festa... errekorra egin nahi genuenez, protagonismo piska bat ere bilatu genuen.

B.L.: Babesle asko izan ditugu, tartean Orioko Udala eta hainbat denda eta taberna, eta egun berezi batean egiteak merezi zuen. Ez pen-

tsa aberastu garenik; batzuk kirol arropa eman digute, lagunekin banatzeko pastel-txoak, edariak... dirua ere eman digute, baina gastuak kitatzeko adina bakarrik.

J.G.: Baten batek pentsatuko du negozioa egin dugula; baina, tonto-tonto, gastua ere ekarri du.

Lagun asko izan zenuten proban alboan. Inprobisatua edo neurtua izan zen?

B.L.: Kiroldegian izena emateko lista bat jarri genuen eta nahikoa bete zen. Goizeko eta arratsaldeko txandak segituan bete ziren eta, gero, pixkanaka, gauekoak ere bai.

J.G.: Orion estropada izanda, TKE n dabilzan lau entrenatzaile ere gonbita egin genien eta hiruk onartu zuten.

B.L.: Eguerdian estropada jokatu ere, arratsaldean ergometroan aritu ziren gurekin eta gustura ikusten zitzaien, gainera. Gu ere bai, jakina.

Azken momentuan zer gertatu zen ordenagailuarekin?

B.L.: Bada, argindarra joan zitzaigula. Hiru ordu baino gutxiago falta zirenean monitorea beltz geratu zen. Guk, badaezpada, jarraitzea erabaki genuen.

J.G.: Gero, New Yorkera bidali zen aparailua eta bertan esan ziguten errekorren marka zehatza: 391 kilometro eta 946 metro.

Zorionak. Eta aurrerantzean?

J.G.: Entrenamentuekin eta familia gehiegi alboratu dugu eta orain lasai egoteko garaia da. Edonork marka hautsita ere berdin zait.

B.L.: Baina aurrekoan berak tentatu zidan eta oraingoan nire txanda da. Ea zer erronka okurritzen zaidan niri.

JOSEBA AGIRRE | FUTBOLARIA

“Aurten ikusi dut urte askotako lanaren emaitza”

13 urte zituela, Irungo futbolari gazteekin hasi, gero Castello, Hospitalet, Murtzia eta Toledotik pasa, eta orain dela 6 urte Real Uniónera bueltatu zen Joseba. Ia beti 2. B mailan jokatu du, profesional moduan, baina aurten Real Union 2. A mailara igo da.

Zer sentitzen da 2. A mailara igokozarela jakiten duzun momentuan?

Poz ikaragarria. 14 urte eman ditut 2. B mailan, beti igotzeko nahian, baina 80 taldetik 4 bakarrik igotzen dira. Irunen bi aldiz iritsi naiz igotzeko mugara eta bietan igo gabe gelditu. Oso gogorra da. Aurten ikusi dut urte askotako lanaren emaitza. Egia esan, normalean ez ditut sentimenduak erakusten, baina ingurukoakzenbateraino poztu ziren ikusteak barrua ukitu zidan.

Nolako aldaketakekarri ditu igoerak?

Bizitzan aldaketa handirik ez; ingurua aldatu da. Orain Real Sociadadekoekin konparatzen gaituzte, telebistan eta egunkarietan gehiago iriten gara, jendeak gehiago ezagutzen gaitu, autografoa eskatzen digu... Bestalde, arau batzuk bete behar ditugu: zelaia, adibidez, 2. A mailara moldatu behar da. Gehienbat, partidetan sumatzen da: futbol zelai handi-handietan jokatzen dugu, eta milaka lagunentzako tokia dute, belarra zaindua... Eta irabazitako dirutan ere sumatzen da, jakina: igotzeko emandako diru sarian eta soldatan.

Nolako hasiera izan duzue?

Hiru partida galdu eta bana berdindu eta irabazi dugu, baina, orokorrean, ez



Urte askotako lanaren emaitzaz disfrutatu nahi du Real Uniónen.

KARKARA

Seguritate gehiago dago 2. A mailan, jendea urrutiago dagoelako. Halere, ikusleen portaerak harritu egiten nau

gabiltza gaizki. Ikusten da beste jokalarien maila, eta gurea landu behar dugu oraindik, golak sartzeko eta gelditzeko. Lehengo urtean hain ondo joan zitzaigunez, orain urduri jartzen ari da jendea eta entrenatzailea. Baina hasi bakarrik egin gara; 42 partidatik 37 gelditzen dira.

Futbolaren bidez, bizimaila batera iristen zara, oso irrealia, eta bat batean bukatu egiten zaizu

Futboleko sufritu edo disfrutatu egiten duzu?

Zelaian jasan behar dena gogorra da batzuetan, batez ere 2. B mailan, ikusleak oso gertu izaten dituzulako, eta batzuetan txistua botatzen dizute, edo buruan kolpetxo bat eman eta ezin diezu ezer esan, bestela... Seguritate

handiagoa dago 2. A mailan, jendea urrutiago dagoelako. Hala ere, ikusleen portaerak harritu egiten nau: agresibo bihurtzen dira, eta izugarriko mehatxuak eta irainak botatzen dituzte.

Baina asko gustatzen zait futbola, eta adinean aurrera joan ahala, are gehiago. Jendeak esaten dit ez dela lana, baina 7 egunetik 6tan lana dugu, eta askotan asteburua kanpoan pasa behar da. Saiatzen naiz gauza negatiboak alde batera uzten eta ahal dudanean disfrutatzen. Lehen, jokaterik ez banuen, gaizki pasatzen nuen; orain beste era batera hartzen dut. Ondo pasa nahi dut irauten duen bitartean, futbolariaren karrera motza baita.

Amaiera hurbil duzu?

Edaderek onena 28 urte ingurukoa omen da; nik 32 ditut, baina fisikoki oso ondo sentitzen naiz, helduago nago eta eskarmentu handiago dut. Halere, hemen 30 urte egin ondoren zaharra zara. Irungo kontratua datorren ekainean bukatuko zait eta ezin da jakin zer pasako den: Irungoa luzatu, beste nonbaitera joan, edo profesional izateari utzi. Uztea gogorra da. Bizimaila batera iristen zara, oso irrealia: egunero 2 orduko lana eginez, ondo kobratu, ordu libre asko izan... Baina bat-batean, bukatu egiten zaizu eta benetako bizitzan sartu behar da. Nik ez dut oso garbi, baina gustatuko litzaidake umeei futbola erakustea. Bestalde, osabarekin lana egiten dut ahal dudanean, eta proiektua dugu etorkizunerako: landa-etxe bat jartzea. Baina ahal dudana luzatu nahi dut futbolarena. Orain 2. A mailan sartu garenez, hori bizi nahi dut.

ZORTZI LOKALETATIK LAU SALDU DIRA ORAINGOZ

Armendigaineko gunea urria bukaerarako prestatu nahian

Bi solairutan zortzi merkataritza lokal egin dira, lur azpian beste horren beste soto eta inguruan 25 aparkaleku berri ere bai.

2008ko maiatzean hasi ziren Armendigainean egiten ari diren merkataritza-guneko lanak eta hil honen bukaerarako merkataritza lokalen jabeak negozioa prestatzen hasteko moduan izatea espero du.

Merkataritza-gunea egiteko bi arrazoi nagusi daude: batetik, komertzioa bultzatu nahi dute herrian eta, bestetik, aparkaleku arazori konponbidea eman. Aparkatzeko arazorik oraindik ez badago ere, Igor Iturain alkateak honako esan digu: *Aiako etxeetan ez dago komertziorako egokitu daitekeen lokal askorik eta, gainera, autoa gordetzeko erabiltzen dira dauden gehienak. Beraz, denda egin eta auto horiek kalean utziz gero, aparkaleku falta areagotu daiteke, arazo bihurtzeraino.*

Merkataritza-gunea egitean bi arazo horiei konponbide erraza emateko modua ikusi zuen Udalak eta horretarako leku bila hasi ziren. Armendigainean erabilera horretarako Udalaren jabetzako lur sail publikoa zegoenez, azalera nahikoa zuena eta, batez ere, iristerraza, leku egokitzat zuten.

1.058.220 euro, BEZ barne, kostako da guztira eta Aiako Udalak egin beharko die aurre gastuei, nahiz eta Eusko Jaurlaritzatik 199.000 euroko diru laguntza jaso merkataritza bultzatzeagatik.

ZORTZI LOKAL

Armendigaineko biribilgunearen ondoan dago merkataritza-gunea eta bi solairu ditu; hiru lokal daude lehenean eta beste bost bigarrenean. Behe-



Goiko solairuko lau lokal salgai daude oraindik.

KARKARA

Aiako Udalak egin beharko die aurre gastuei, nahiz eta Jaurlaritzatik diru laguntza jaso merkataritza bultzatzeagatik

ko denak eta goiko bat saldu dira dagoeneko: farmazia bertara pasako da, bi lokal batu eta kafetegi-pasteleri-okindegia egingo da, eta bestean ileapaindegia jarriko dute.

Horrez gain, lur azpian ere beste solairu bat egin da eta zortzi soto egokitu dira bertan almazenerako. Gainera, merkataritza-gunearen inguruan hogeita bost aparkaleku egin dira salerosketak eta jendearen joan-etorria errazte aldera.

ORAINDIK SALGAI

Goiko solairuko lau lokal salgai daude oraindik: 48,52; 55,95; 55,32; eta 50,34 m²ko azalera dute, hurrenez hurren, eta 1.701 euro balio du metro koadro bakoitzak.

Azpi-solairuko sotoak ere erosteko daude, izan ere, farmaziakoa da sotoa erosi duen bakarra. Gela horiek merkataritza lokalentzako sortu dira, beraz, horien jabeek emango zaie erosi ahal izateko lehen-tasuna.

Alkateak jakinarazi digunez, azaroan beste deialdia egitea ari dira aztertzen, izan ere, negozio guztiak ahalik eta denbora tarte txikienean irekitzea komenigarri izango litzateke, lanen traba eta enbarruak ahal den gehien gutxitzeko. Bigarren deialdi hori, lokalak saltzeko izan beharreen, errentan emateko izan daitekeela ere esan digu Iturainek.

LABUR

MENDI LASTERKETA Uhartre-Arakil Amilibiarentzat

Irailaren 20an, Uhartre-Arakilen jokatu zen lasterketa bertikalean, Pagoeta Mendi elkarteko Nerea Amilibia izan zen garaile 52 minutu eta 11 segundoko denborarekin.

Proba horrekin amaitu zen Euskal Herriko Igoera Bertikalen Zirkuitua eta, horrenbestez, Nerea Amilibiak hirugarren izatean lortu du sailkapen orokorrean, 178 punturekin. Izaskun Zubizarreta donostiarrak lortu du aurtengo txapela eta Jone Urkizu azpeitiarra izan da bigarren.

LANAK

Errepidea berritzen

GI-3710 errepidea konpontzen ari dira Illarremenditik hasi eta Aiarainoko tartean eta, beraz, semaforo bana dago norantza bakoitzean. Pro-bisa enpresa ari da lanean eta errepidea asfaltatzeaz gain, bide bazterreko ubideak ere egiten ari dira tarte horretan.

Lanen kostua guztira 548.461,34 eurokoa aurreikusuten da, BEZ gabe, eta Diputazioak ordainduko du. Hiru hilabetez luzatuko dira egin beharrak; beraz, urtea bukatzerako prest izatea espero dute udalekoek.

Udaletxea

Lanpostuak sustatzeko Espainiako Gobernuak bideratutako diru laguntzarekin udaletxea berritzea erabaki zuen Udalak.

Lanak egin bitartean, kultur etxean egiten ari dira Udaleko kontuak. Lanak urriaren 12rako bukatuta egotea espero du Igor Iturainek.

AIAKO LEHIOA

Etxetxoa lekuz aldatu zutenekoa

Nor ez da egon Etxetxoan eserita kontu kontari edo autobusaren zain eguraldia euritsua edo beroegia denean? Ez dauka edozeinek horrelako markesina historikoa, alajaina!

Adituek diotenez, bertan dagoen erdiko gurutzea probintziako ikusgarrienetakoa omen da, duen forma bereziarengatik, hareharri pieza bakar batean egina dagoelako, tamainarengatik eta dauzkan irudiengatik ere. Bertan margotuta azaltzen den 1810 data ez dakigu gurutzea egin zen urtekoa ote den: litekeena da atze aldean edukitzea data hori eta, orain ikusten ez denez, hormari ia itsatsita dagoelako norbaitek aurrean pintatzea.

Garai batean, Etxetxo horren barrenean mahai baxu

baten antzeko harrizko koxka zegoen eta hilkutxa Done Esteban elizatik kanposantu bidera bizkarrean zeramatean –orduan horrela egiten zen– hor egiten zuten azken geldiunea, gorpua koxka horretan utzi, apaizak errespontsua errezatu eta azken aldapa igotzera kanposantu bidean.

Baina, halanola diren gauzak: errepidea zabaldu egin

Adituek diotenez, erdiko gurutzea probintziako ikusgarrienetakoa omen da, duen forma bereziarengatik

behar zela eta Etxetxoa lekuz mugitu behar, kenduko ez bazen, errepide berriak joan behar zuen lekuan traba egiten zuelako. Udaletxean eztabaidatu ondoren, egitura osoa 40 bat metro mugitzea erabaki zen, Oriorantz.

Lanaren ardura nagusia Inazio M. Aldai aiarraren gain egon zen, eta bost bat lagun aritu omen ziren eginkizun horretan, familiakoak esan

Errepidea zabaldu behar zela eta Etxetxoa lekuz mugitu behar, kenduko ez bazen, bidea egiteko traba zelako

digutenez. 1970ko uztaila zen.

Dena batera mugitzea ezinezkoa zenez, lehendabizi bazter guztietatik argazkiak atera zizkieten eta egituraren oinarri ziren harriak zenbatu egin zituzten, gero banan banan kendu eta 30 m luzera zuen garabi batez pieza guztiak mugitu orden zehatz bat jarraituz, ondoren lehen zegoen bezala berriz eraikitzeko. Baita egin ere, hilabete eta erdian gutxi gorabehera eta 133.000 pezetako kostuarekin –gaur egungo 800 euro inguru–.

Berriro Etxetxotik pasatzen zarenean eta harri batzutan oraindik pintatuta dauden zenbakiak ikusten dituzunean, badakizu orain mugitzelan horren ondorioak direla.

ELI LASA

TXOKOAK ETA JENDEA



Leizaranetik barrena bizikletaz

Udari agurra emanez bizikleta irteera egin zen Leitzatik Andoainera. Eguraldi ederra, paraje zoragarriak eta giro ederra partaideen artean. Denek primeran bukatu zuten eta askori motza ere egin zitzaion ibilbidea.

Hurrengoan gehiago!

Jostailu erotikoak saltzeko dendan, antzerkian eta Zinemaldian murgilduta ibili da Manex Rekarte azken urteotan. Donostian denda bat ireki ondoren, lan eskaintza interesgarria jaso zuen eta Radio Euskadin entzungo dugu goizero Boulevard saioan. Aitzakiarik behar ez, beraz, harekin solasean jarduteko.

KARKARA TALDEA

Nola joan zitzazizun estreineko saioa Boulevarden?

Egun batean hainbeste gauza ikasten badira, bi astean titulua jasotzeko moduan egongo naiz! Ez dago zeharo zehaztuta nolako saioa izango den, eta uste dut aurkeztu baino zuzendu behar dudala gehiago, pixkana saioak nahi nukeren forma har dezan. Hobeto egin behar dut eta, bide batez, disfrutatu, irratan asko sumatzen baita hitz egiten duena gustura dagoen edo ez, eta, gainera, beste guztia alboratu dut hau egiteko.

Nola azaldu zaizu irratan lan egiteko aukera?

Hainbat programatan kolaboratzaile izan nintzen Madrilen bizi nintzen bitartean eta, uda honetan, Radio Vitorian aritu naiz sexualitateari buruz hitz egiten. Arrakasta izan zuen saioak eta hortiketorri zitzaidan eskaintza. Egunero astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik



EITB

MANEX REKARTE COWIE | AKTOREA, DENDARIA ETA IRRATIKO ESATARIA

“Erronka da Boulevard irratsaioaz egunero arduratzea”

eguerdiko 12:00ak bitartean izango naiz *Boulevard* saioa gidatzen. Gero, Euskadi Irratian astelehenetan *Ilargipean* programan ere parte hartuko dut gauerditik goizeko 02:00ak arte, sexuari buruzko gaiak lantzen. Irratian interes handia dago sexuaren inguruko gaiak lantzeko eta dendaren bidez izan dudan esperientziagatik etorri dira niregana.

Gauza asko ikasten ari zara?

Asko. Duela bi aste hasi nintzen eta ardura handia jarri dute nire eskuetan. Nahi eta ez, asko ikasi behar duzu. Urte askotan kanpoan bizi ondoren, euskal gizartea ezagutu eta hemengo gauza askorekin eguneratu behar dut. Baina jakin-min handia duen pertsona naiz eta erraztasuna dut jendearengana gerturatzeko, eta horrek lagunduko dit elkarrizketak egiteko eta gaiak prestatzeko momentuan.

Zailena alde teknikoa izan da: soinua nola editatu, musika nola prestatu... baina taldearekin oso kontentu nago, berek gabe ezinezkoa bailitzateke horrelako 2 orduko programa bat prestatzea. Taldeko teknikariek zein erre-daktoreek oso ondo hartu naute eta laguntza handia eman didate. Eskertzekoa da.

Nola da programaren barruko funtzionamendua?

Landuko ditugun gaiak eta gidoia koordinatzen dut erre-daktore taldearekin. Goizeko seietan sartzen dira haiek lanera, ni, berriz, zazpietan. Eguneko informazioa lantzen ditugu, egokiak edo garrantzitsuak diren gaiak aukeratu eta gonbidatuekin harremanetan jarri, unitate mugikorra antolatu... Behin edukia prest dugunean, antenan sartzen gara estudioan, eta nik eta Iñaki Lopezek, *Pásalo* programako aurkezleak, gaiei heltzen diegu banan-banan. Iñakirekin egongo naiz saioko lehenengo orduan, eta bigarrenean bakarrik.

Boulevardaren aurreneko orduetan gai politikoak jorratzen ditu Dani Alvarezek eta, bigarren partean, gizarte ingu-

ruko gaiak, egunekoak. Horrez gain, egunero, sail berezi batean, gai bati helduko diogu: sexualitatea, teknologia berriak, bidaiak, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, zinea, artea... Programa freskoak, entretenituak eta didaktikoak egin nahi ditugu eta entzulearen partehartzea bultzatu.

Batzuek esango dute sozialistei zeure burua saldu diezula.


Batzuk marmarka aritu dira, eta bai, badakit batzuk hori sentitzen dutela. Baina ni oso gustura nago taldean jende zeharo profesionala garelako. Batzuek ukitu politikoa gehitu nahi diote, baina Euskal Herritik kanpo denbora luzez bizi izan eta gero, itzultzen zarenean konturatzten zara oso erraz politizatzen dela guztia. Azken finean, hau aukera bat da, erronka bat niretzat. Gobernua izan den aldaketak EITBn ere aldaketak ekarri ditu, baina ez du esan nahi jende berri guztia PSOeko jendea denik. Askok pentsatzen du garaia zela aldaketa batzuk egiteko euskal medioetan, eta lanean gaudenok ez dugu denbora gehiegi politikaz pentsatzeko. Garbi dugu euskal komunikabidea dela EITB. Gainera, ni neu pertsona nahiko apolitikoa naiz eta aukeratu naute ditudan gaitasun batzuegatik eta ez entxufe politikogatik.

EITBekin urtemuga duzu aurten. 10 urte dira EITBn hasi zinenetik, Goenkalen, gero Hasiberriak telesailan. Aktore izateaz zeharo alboratuta duzu?

Ez. Gazteago nintzenean aktore izatek bizi behar nuen. Orain, soldata beste gauzeta-tik ateratzen dut eta aktore lan gutxi batzuk besterik ez ditut egiten, gustuko proiektuak direnean. Egunero grabatzen diren serietan aritzea oso gogorra da.

Donostiatik Madrilera eta orain Bilbora. Zer aldaketa ekarri dizu Bilbora joateak?

Sentsazio freskoa eman



dit. Egia esan, oso lanpetuta ibili naiz; lan berrian hasi naiz justu Zinemaldian aurkezpenak egiten ditudan garaian, eta ezin izan dut Bilbon asko ibili. Baina hiri dinamikoa eta interesgarria iruditzen zait, eta Madrildik etorrira harri-garria egiten da begiak altxa eta mendiak ikustea! Airean askoz ere garbiagoa da, jendea gertukoagoa...

Venezuelan jaioa, Ingalaterran haurtzaroko 7 urte pasa-

takoa, Euskal Herrian beste 18 Aian eta Donostian, 6 Madril... Kanpotarra izateak eragina du zure bizitzan?

Noizean behin lagundu egin dit, Zinemaldian, esaterako, hiru hizkuntzetan egiten baitugu lan, eta ingelesa jakiteak asko lagundu dit. Baina ez dut uste nire ibilbidea markatu duenik. Baliteke irratian laguntzea, elkarrizketa batzuk ingelesez egin beharko dire-lako. Nire kasuan, zorte han-



ZINEMALDIA

dia dut hiru hizkuntzak ahoskera egokiz hitz egiten ditudalako, eta hori lagungarria da irratian lan egiteko.

Jostailu erotikoak saltzeko La Juguetería denda ireki zenuten bi soziorrekin orain dela 5 urte. Nola joan zaiuzue?

Oso ondo. Ez genuen sexshop arrunt bat jarri nahi, baizik eta helduentzako jostailu denda eta, hasieran, askok pentsatzen zuten partxisa eta

xakea salduko genituela! Bost urte hauetan asko aldatu da jendearen jarrera; neurri batean normalizazio lana egin dugu sexua dela eta. Arrakasta dezente izan dugu, eta sozioak garen Oli Acosta, Tatiana Escobar eta hiruroi sexuaren inguruan beste aktibitate asko egiteko aukera eman digu. Sexuaren Unibertsitatea sortu genuen, ikastaroak eta tailerrak antolatu, hezitzaileak ekarri, jendeari sexuaren inguruan ikasteko aukera

emateko. Gai asko landu dira: jostailuekin nola jolastu, masaje erotikoa edota striptease-a nola egin... Aurten, Helduentzako Zine Jaialdi Independentea antolatu dugu eta horrekin lotura duen webgunea www.zineparadultos.com. Oso proiektu interesgarria izan da eta motibagarria. Gainera, gaur ikusten ari garazine konbentzionalak gero eta eduki sexual gehiago duela eta pornografiak, berriz, zine gehiago. Aurten,

adibidez, Canneseko festibalean sari dezente irabazi dituen *Antichristo* filmak oso eduki sexual gordina du. Uste baino hobeto funtzionatu zuen.

Sex shopa aipatu eta irudi nahiko nazkagarria etortzen zaizkigu burura.

Bai, baina gurea da sexu alternatiboan sinisten dena, konbentzionalismotik aldentuta eta sexu identitate guztiak onartuz hasita. Sexu kon-

PROGRAMA

“Astelehenetik ostiralera goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00ak bitartean izango naiz Boulevard saioa gidatzen Radio Euskadin, lehenengo ordua Iñaki Lopezekin eta bigarrenean bakarrik”

NOLAKOA NAIZ

“Jakin-min handia duen pertsona naiz eta erraztasuna dut jendeari gerturatzeko, eta horrek lagunduko dit elkarrizketak egiteko eta gaiak prestatzeko momentuetan”

POLITIKA

“Batzuk marmaraka aritu dira, baina Euskal Herritik kanpo denbora luzez bizi izan eta gero, itzultzen zarenean konturatzen zara oso erraz politizatzen dela guztia”

SEXUAN NORK BERE BURUA BERRITZEN

“Praktika berrietan hasteko, jostailuek laguntzen digute. Produktuak ez dira erabiltzen gure gorputza funtzionatzen ez duelako, baizik eta sentsazio berriak eta atseginak probatzeko, monotoniatik ihes egiteko, oztopo psikologikoak gainditzeko”

GIZONAK

“Gizonok asko murriztu dugu sexuan jolasteko erak, eta kikildu egiten gara”

bentzionala oso genitala bihurtzen da eta horrek mugatu egiten du jolasteko dugun gaitasuna eta sentsazioak lantzeko aukera. Pentsatzen dugu mezu positiboa, alai, behar dela, juiziorik gabekoa, konbentzionalak diren formuletatik ihes egiten duena. Jolasteko era asko dago, jokoera eta planteamendu diferentek landu daitezke, sexu-orientazio guztiak onartu.

Askori erreparo pixka bat ematen dio horrelako denda batera sartzea. Zer aurkituko du hara joaten denak? Zer erosi nork bere bizitza sexuala alaitzeko?

300 produktu baino gehiago ditugu, beraz, aukera handia dago. Dendara etortzen dena aurreiritzirik gabeko tokia aurkituko du, eta horrek laguntzen du nork bere muga propioak gainditzen. Pornografia eremuetan eskaintzen diren jostailuak ez dituzu gurean aurkituko. Ditugunetako asko emakumeek diseinatu-tako jostailu erotikoak dira. Ezagunena, bilatuena eta kuriositate gehien pizten duena –batez ere emakumeengan– bibratzailea da. Kitzikatzeko prozesua azkartzeko eta sentsazioak areagotzeko tresna da, nork bere gorputzean edo, lagunen artean gozatzeko. Edo bola txinatarrek, adibidez, arrakasta handia izaten dute eta osasuntsuak dira: baginaren pareteko giharrak lantzeko, pelbisaren indarra errekuiperatzeko edo, adinean aurrera joan ahala, pixak ihes ez egiteko tresna oso ona da.

Askotan, sexualitatearen inguruan kuriositatea izaten badugu, praktika berrietan hasteko, jostailuek laguntzen digute gauzak deskubritzen edo probatzen. Kosmetiko erotiko oso onak daude, zaporea duten hautsak, lubrikanteak edo estimulanteak. Produktuak ez dira erabiltzen zure gorputza funtzionatzen ez duelako, baizik eta sentsazio berriak eta atseginak sortzeko, monotoniatik ateratzeko eta oztopo psikologikoak gainditzeko.



Iruditzen zait denda gehiagoda emakumeentzat gizonentzat baino.

Egia da; gizonok asko murriztu ditugu gure jolasteko erak eta oso gauza bisualak –pornografia, arte eta liburu erotikoetara– mugatzen gara, eta penetrazioan zentratzen dugu sexualitatea. Gizon batek ere gozatu dezake masaje erotiko bat jasoz edo eginez, zapore duen lubrikantea gorputzaren atal batek miatzatuz, estimulantea

edo bibradorea erabiliz. Baina egia da gure gizartean emakumeek sexualitatean oso pauso handiak ematen ari direla, eta produktu asko daukela haiek eskatuta. Gizonen kasuan askotan dena hitzetan geratzen da: *Bai, badakit lubrikantea zer den*, baino benetan ez daki zenbat eta nolako plazerra eman diezaiokeen. Kikildu egiten dira, lotsatu.

Jende askori lotsa emango dio dendan sartzea.

Sexualitate munduan gure lagunik onena, baina baita gure etsairik txarrena, gu geroi gara. Guk jartzen dizkiogu mugak geure buruari. Dendaren weba begiratzera (www.lajugueteria.com) animatzen dugu jendea, produktuak eta filosofia ezagutzeko.

Bestalde, harrotasun sexuala falta zaigu, eta sexualitatea ezkutuan gordetzen dugu askotan, baina dendetik pozik eta harro ateratzeak



KARKARA

erakusten du zure sexualitateari garrantzia ematen diozula, zure buruarekin ondo sentitzen zarela. Hori indartu nahi dugu. Bezero fidelak izaten ditugu ikusten dutelako sexualitatea beste era batera zaindu ahal dela. Lehenengo kontaktua da zailena; baina, egin ondoren, pisu handia kentzen duzu gaintik.

Legeak mugajartzen dutelako, 18 urtetik gorakoek soilik dute aukera dendan sar-

tzeko eta, Donostian, momentuz dugun eroslerik zaharrena 73 urte ditu! Mota guztietako bezeroak ditugu: gay direnak, heterosexuak, bikotekidea badutenak eta ez dutenak, bakarrik etortzen direnak, laguntza nahiago dutelako koadrilan etortzen direnak...

Sexuaz hitz egiteko normalizazioa lortuko da komunikabideetan?

Oso gutxi hitz egiten da sexuaz, eta egiten denean ez

da erarik onenean egiten. Askotan txiste moduan tratatzen da, eta seriotasun edo lasaitasun gehiagorekin egin nahi duzunean jendea harritu edo beldurtu egiten da. Badago hitz egiteko hainbat era, nolabait lizunkerian erorigabe, eta pixkana lekua hartzen ari da.

Hori dela eta, Donostiako dendarekin erronka bat dugu: weba euskaraz jarri behar dugu. Oraindik gizarte honetan sexuaz euskaraz hitz egitea arraroa egiten zaigu. Badi-rudi *alua* hitza, esaterako, ezin dela erabili, iraintzeko ez bada, eta ez da egia. Tabuak gainditu behar ditugu hizkuntzarekin ere.

Web orriaren bidez gauzak saltzen dituzue?

Bai, asko. Batzuentzat zaila da dendan sartzea, hirian bizi ez direlako, denborarik ez dutelako, lotsa ematen dielako, edo anonimotasuna gorde nahi dutelako. Erraz, azkar eta diskrezioarekin gauzak eskatzeko eta postaz jasotzeko aukera ematen du gure web guneak. Dagoeneko, Bizkaia aldera eta Goierri aldera pakete asko eta asko bidaltzen ditugu.

Gauza asko egokiak dira oparitzeko. Gainera, emateko momentuan barreak izaten dira, konplizitatea, bestearen intimitatean sartu zarelako, eta lagunek asko estimatzen dizute pauso hori eman izana. Hala ere, susmoa dut batzuetan lotsagatik esaten digutela beste batentzat dela. Hori gutxitzen joango da, eta egun batean nor bere erosketak lasai eta pozik egingo ditu, lotsa sentitu gabe eta harro, bere sexualitatearen jabe delako.

Bikotekide bat duzunean espero duzu, nolabait, gimnasta sexuala izatea.

Batzuetan, bai, zirkora joateko ilusioarekin hartzen zaituzte, ea zer egingo duzun! Batzuetan dibertigarria da, beste batzuetan ez, baina neurri batean normala da, eremu horretan mugak urrutiago jarri dituzulako.

Pertsona oso naturalak gustatzen zaizkit niri eta era normalean tratatzen dut harremana. Nolanahi ere, lehenengo kontaktuan ez da gauza deigarririk egiteko momentua, konfiantza sexuala lortu behar da gimnasta bihurtu baino lehen!

Zinemaldian ere parte hartzen duzu.

Bai, orain dela 9 urte EITBn lanean ari nintzela, Aizpea Goenagak eman zidan aukera Zinemaldiko taldean sartzeko, gehienetan aurkezle moduan belodromoan. Pelikulak eta gonbidatuak aurkezten ditut eta elkarrizketa txiki batzuk egin jendeak ikusiko duen pelikularen inguruan gauza gehiago jakiteko. Belodromoan lan egiten dugun taldekoak oso ondo konpontzen gara, nahiz eta urtean behin bakarrik elkartu. Hala ere, azken urteetan ez dut film asko ikusi, eta pena ematen dit. Pelikula alternatiboak ikusteko aukera ona izaten da, baina tamalez, beste lan askotan sartuta egon naizelako, ez dut denboralibre asko izaten. Baina saiatzen naiz aurkezten ditudan eta ahalik eta pelikula gehien ikusten.

Kontaiguzu Zinemaldiari buruz ez dakigun zerbait

Jendeak glamourra ikusten du, baina ez dira konturatzen zenbat jendek lan egiten duen Zinemaldian. 300-400 lagun egoten gara, bi asteetan Zinemaldian murgilduta, goiz, arratsalde eta gauetz, era guztietako lanak egiten.

Ez dakizuten zerbait kontatzeko? Ba, esate baterako, isiltasun kontratua sinatzea behartzen gaituzte eta Zinemaldiaren barruan gertatzen den guztia ezin dugu publiko egin. Izar batzuk, adibidez, astebete gehiago gelditzen dira, nekazalturismo etxe bat berak eta bikotekideak hartuta, edota familiarekin etorrira. Batzuk, jateko leku batekin txundituta gelditzen dira eta leku berberera bueltatzen dira egunero. Eta beste hamai-ka anekdota.

ADARRETATIK HELDUTA

Beste modu batean

Aurrekoan Iruñean izan nintzen Eusko Alkartasunaren eguna ospatzen; egia esan, badu zentzua Euskal Herriko hiriburuan ospatzeak, bertatik hasi delako euskaldun edo abertzale garen gehiengoari ilusioa berpiztu dion saiera bateratua, hau da, erakustea gizarteari badagoela askatasunez eta bakean bizi nahi duen herri historiko bat, bai European eta nazioartean ere; azken finean, beste ikuspegi bat, beste egiteko era bat aplikatu nahi diona herri santuhoni, kasu horretan, nazio ikuspegia dugunon aldetik, eta harro gaude, ez dugu inolako lelo historizistarik behar!

Hori azaltzeko asmoz nator hau idazten jarraitze-
ra ondorengo parrafoetan, KARKARAK ematen didan aukera baliatuz; harira joko dut, beraz.

Hasteko, badaude pare bat gai herrian bueltaka ibili direnak denbora luzean eta, egia esan, uste dut eternizatzen ari direla, adibidez: herriko gaztetxea eta Ikastolaren eraikin berriaren inguruko gorabeherak, plan urbanistikoak (Munto, Eroski)...

Herriko EAKo zuzendaritza hartu genuenetik pixkanaka-pixkanaka joan gara eritimoa hartzen eta esperientziarekin ikasten, ahalik eta erabaki onenak hartuz udalerrarentzat eta bertako herritarrentzat, guztiontzat, baina erabakigune honetan bakarrak ez garenez, beste



OIER GARMENDIA
POLITIKA-ZIENTZIETAKO IKASLEA

Gazteak dira politikan konfiantza gehien galdu dutenak

Gazteentzako gunea behar da eta hala eskatzen dute: gune publiko eta irekia

batzuekin tartekatu behar guzti hori eta askotan ez da gustu onekoa izaten.

Dagoeneko aurtengo Gazte Festak pasa dira eta Gaztetxearen gaia luzerako doala pentsatzen hasia naiz. Dikeko lokalaren tramitazioak, normalean bezala, oso luzeak izaten dira eta, beraz,

gogo politikoa eta nahia jarri behar dira bereziki, nik askori aipatu diodan bezala, gehienbat, herriko gazte guztiek beren gunea behar dutelako eta hala eskatzen dutelako; kasu honetan 16-18 urtetik gorakoek gune publiko eta ireki bat izan dezaten eguneroko aisialdian. Eta hori guztia zergatik? Non egongo dira bitartean gure herriko gazteak? Bai, lokal pribatuak badaude noski, baina hori al da Udalak egin beharreko ekarpena, ala gazte guztiak elkar-trukatuko duten gune publiko bat eskaintzea ez al da hobe? Ni bigarren aukerarekin nator bat eta hori konpontzeko hitz egin eta lanean jartzea da aukerarik onena, izan daitkeen konponbiderik errazena, gerora arazo bilakatu ez dadin.

Udala denok osatzen dugu eta, beraz, denon ardu-
ra eta arazo dira bertan planteatzen zaizkigun gaiak.

Nik gutun honekin zera adierazi nahi nuen, bai Ikastolako eta baita gazte orori -gazteak izaten baitira politikan konfiantza gehien galdu dutenak, eta denon artean aldatu beharrekoa da hori-, beste edozein herritarri bezala, beste modu batean gauzak egitea posible dela eta beste eredu eta praktika motak ditugunak ere bagarela politikan.

Beraz, konfiantzarekin eta ekinaren ekinez lortuko ditugun helmugak izango dira aipatu ditudanak.

NIRE HONETAN

Arralden ere ezin elkartu

Presoen aldeko www.askatu.org webguneak elkartasun egun faltsu baten berri eman zuen irailaren 16an. Ekitaldia Arralden egitekoa zen irailaren 19an, eta pala txapelketa, herri bazkaria, manifestazioa eta gaztetxeko kontzertua ziren egitarauaren ardatz.

Baina nola egingo da ekitaldi hori fikziozko herri bat bada Arralde? Bada, ekitaldia baimendu zuela ikusita, nabari da Garzon epaileak ez duela Goenkale ikusten. Eta argi dago *Dignidad y Justicia* eta ABCek ere ezetz, lehenengoak ekitaldia debekatzeko eskatu baitzion Auzitegi Nagusiari eta bigarrenak, gainera, egin zen ekitaldiaren berri eman zuen hurrengo eguneko edizioan.

Zentzugabekeria horri beste buelta bat eman zion, gainera, *La Razón* egunkariak, *ETA impone el vasco como única lengua de uso interno* zioen notizian. Euskaltegiak ilegalizatzeko aitzakia bila ariko dira orain, ziurrenik.

Ez al dira konturatzen adar jotze bat dela eta behin eta berriz ziria sartzen ari zaizkiela?

Justizia, prentsa eta abar astakirten horien esku egoteak barrea eragiten dit. Barrea, negarra, ezina, samina, nazka...

MIKEL ARANZABAL

ATC
Agentes: Olariaga

TORREALDAY
aholkularitza

Berezitasunak:
 ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
 ✓ Aseguru artekaritza.
 ✓ Finken administrazioa.

Bereak 4. beheak. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 89 www.aldomalday.com e-mail: olariaga@olariaga.com

Dorronoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

MOILA BAZTERRETIK

Goikokalekoak



GARBIÑE MANTEROLA

Moila bazterreko arra-toia naiz eta inoiz ez dut Goiko Kanean bizitzeko ilusio berezirik izan. Ez pentsa, izan dut bertan erroldatzeko gonbidapenik, baina orain artekoak eskaintza eskas samarrak izan dira

eta errio bazterrean segitzea erabaki izan dut beti. Hala ere, egiten dut eskurtsioren bat edo beste nire hanka motz hauekin, ehun aldapa eta mila eskaileren beste aldera.

Goiko Kaleko festa batzordeko zikulusaltseroak lagunak ditut. Aurreko ostiralean jaso nuen beren mezua: prexixozela ni Kale Nagusira azaltzea. Arropa zaharrak jantzi eta elizako aldapatik barrena azaldu nintzen, ustez lanera. Baina Garbiñe bereganatzeko katramila bat izan zen hura!

Buruhaundieneko etxera eraman ninduten, aurtan zorteko baitira goikokalekoak, aterpe dotore hura lortu dute eta auzoko festetarako. Musutruk jaso dute gainera, garai bateko Justinaren denda zena erabiltzeko aukera. Han sartuta eduki ninduten arratsal-

de osoan, baina ez lanerako. Kalera parez pare atea ireki eta banan-banan sartu ziren goikokalekoak. Barrura egin eta istorio ezberdin bati heldu zion bakoitzak. Arratsaldean bukatzerako ezezagunak zitzaizkidan mila kontu belarritatu zizkidaten. Lau partak sorgin begiekin aztertuz egin zuen bakoitzak bere kontakizuna. Aldapan gora joanez gero, ipuin kontalari finak topatzen direla ikasi nuen.

Beldurturik alde egin nuen bertatik. Ikaragarriena ez baitizuet azaldu: Buruhandieneko dendara sartu ziren guzti-guztiek, kalera irtetea, hogeita hamar urte gutxiago zituzten!

Kontuz behokokalekoak aldapa gora igotzean. Hauspoa berotzeaz gain, inoiz behera ez jaisteko arriskua

Beldurturik alde egin buen bertatik. Ikaragarriena ez baitizuet azaldu: Buruhandieneko dendara sartu ziren guzti-guztiek, kalera irtetea, hogeita hamar urte gutxiago zituzten

baitago. Sorginkeriaren gorena hemendik astebetara izango omen da! Eta hori horrela ez bazan, sar nazatela kalabazan eta atera nadila Pilli-kuko plazan!

egunero-egunero.
zuekin...

www.karkara.com

Konektatuai!

Carmen eta Txomin
ARRANDEGAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

PERTSIANAK

A
K
O

M
A
Z

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel: 943 13 29 01 Mugikoma 600 70 52 27

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.urang@euskalnet.net

Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

iSLada
BESLEINA ZARLEGA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balsaren kalea, 2 beheko Orrio 20810

Tf: 943 133 83b

e-maila: isladaorrio@hotmail.com

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORRIO

943 83 38 75

tel/fax: 943 89 00 69

Bihotz kalea 4. 28.500 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Preziozkoak, laguntza eta gabe

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezkerrean

telefon: 943 83 08 12

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz

Ibañe Ondo pl. 8 Orrio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

URAITZ
kurriologia
konsumoak

Enlata,3 Tfno: 943 83 18 97

zkue

Tf: 943 13 04 38

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: -Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
943 13 25 32

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA,4 Tel.: 943 83 16 57

kutxa

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TXORROKAK - BALBULAK

Santiago eztoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM **AENOR** **ENDE** 180 9002

Eskerako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna

eduzitegia
ANTILLA
jistolaketa

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

**25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN**

La jugueteria *erotic toys*

PAGAFANTAS? **BAI ZEA!**

Urria osoan.
la jugueterian erostean.
**%10 merkeago Karkarako
publi hau erakutsita**

- Dardaragailuak • Bola txinabarrak •
- Kosmetiko erotikoak • Lentzeria •
- Fetitxeak • Arnesak • Dildoak •
eta askoz gehiago!

EZ ZARA ASPERTUKOI!

Usandizaga Kalea 5, 20012 Donostia
11:00-14:30 & 16:30-20:30
T/Faxa: 943 29 37 33

www.lajugueteria.com



Tonetti koadrila

Aspaldian egin ez bada ere, garai batean Orion bazen arrantzale eguna ospatzeko ohitura. Arrantzale eguna azaroaren lehen igandean egiten zen, baina Santu Guztien egunarekin egokitzen bazen, bertan behera uzten zuten jaia, orduan sakratua baitzen egun hura.

Kofradiak antolatzen zuen urtero festa. Festa hori lauzpabost

urteetan egin zuten, baina diru falta zela-eta, bertan behera geratu zen gero.

Argazkia 1968ko Arrantzale Egunekoa duzue. Bertan, arrantzale zirenak eta ez zirenak ikus daitezke. Kanta bat ba omen zuten *Tonetti* deiturikoa eta egun hartan ere behin baino gehiagotan abestu omen zuten. 1950ean jaiotakoak dira gehienak eta hauek dituzue goitik hasita eta ezkerretik eskuinera:

F. Aldakur,
P. Uranga, B. Larraza,
J. I. Ostolaza,
J. M. Gurrutxaga,
J. Manterola, A. Etxeberria,
J. M. Lizarreta, R. Lanberri,
X. Ibirriaga, R. Segurola,
A. Herrero, J. M. Garmendia,
A. Urkizu, J. M. Egibar,
A. Ortega eta J. A. Urkizu.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:
PATXI URANGA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARAra eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Pinturak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Azenda/Industrialdia

843 83 08 45 / 618 60 24 05

ZAPALIZ

ZAPATA KONPONKETAK

Lanurrietan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00

Larrietan: 09:00 - 13:00

Herritiko errepantxa, Oria

cusko gudari 5

647 02 84 85 - 943 83 41 17

Muxatrukiorenda

etikaz etikako zaborlana

ezkontzak

lurrezko, buruzko eta erretako egonak

hileta elizkizunak

lurrezko

lurre-telebista

KRITIKA



Txuria eta beltzaren arteko kontrasteak nagusi izan ziren ikuskizunean.

AUKERAN

Gernika, mihise gaineko dantza

Harribilek zabaldu zuen irailaren 26ko dantza ikuskizuna. Hiru dantza taularatu zituen, Aukerani bide emanik. Dantza konpainiaren ibilbidean, estilo aldaketa bat bazela antzeman zitekeen hasiera-hasieratik.

Laster, argi sotil eta eranzte geldo batek hasiera interesgarri baten aurrean kokatu zuen ikus-entzulea. Une oro elegantziaz eta ahots lirain batek gidatuta, Gernikako gertakarien inguruan ordu bete inguruko emanaldia ikusi ahal izan zen: ame-

tsetako uztai joko dotoreak, Gernika koadroko figura-zurrunbiloa, dantzarien oreka bikaina, fandango jolasak, grabitateari eginiko desafioa, etsai beltzaren mugimendu zurrunak...

Guztia eszeneratze perfektu batez, arropa zuri-beltz dotorez eta argi-musika joku interesgarritz. Argizatzeak eszenaratzea jantzi eta emanaldia apaindu zuen; edertu. Musikak gaiaren sakontasunean barneratu zuen publikoa. Alegia, sentimenduak esnatu zituela. Bukae-ra kasu, musika indartsuz

emozioz beteriko amaiera ederra bezain sentitua lortzen baitute dantzariak. Kiroldegian bildutako jende andana 120 kiloko txalo zaparradara eraman zuen, zuzen-zuzenan.

Aukeraneke bide berriak ireki eta lantzen jarraitzen du. Emanaldia heldu ahala, arrakasta handia lortu dezake. Gaiak berak ere bai, Gernikak: ez dezagun ahaztu nazioartean izan dezakeen interesa...

JOSEBA ORELLA

IKASLEAK IDAZLE



GOIURI UNANUE |

DBH 4. MAILA

Ordutegi jarraia

Inguruko institutu zein eskola edo ikastola gehienek ordutegi jarraia izan ohi dute. Hau da, goizean goiz, 8ak edo 8:30ak aldera sartu eta bi atsedendaldiren ondoren 14:30ak edo 15:00ak aldera irten. Ordutegi hori, gutxienez, asteazken eta ostiraletan, egiten dute, eta oso interesgarria iruditzen zait. Egia esan gure ikastolan txertatzea ez litzateke gaizki etorriko. Izan ere, nahiko astuna egiten da bazkaldu ondoren berriz ere ikastera itzultzea, ez ikasleentzat soilik, irakasle gehienentzat ere askoz erosoagoa deritzot. Batez ere, haurtxo txikiak dituztenentzat. Ez zait iruditzen konpara daitekeenik ostiral arratsalde batean 17:00etan edo 14:30etan iristea etxera. Beraz, gure ikastolan ordutegi jarraia ipintzea, DBH behintzat, nahiko komenigarria iruditzen zait.

Goizeko
KAFETEGIA
943 83 28 55
Aita Lertxundi, 33 beheko ORIO
Autobus parada ondoan

HAIZE BERRI
taberna-jantetxea-kafetegia
Plater konbinatuak,
bekadak,
hamburgesak,
ruzioak,
eguneko menua...
eta etxera eramateko zerbitzuak
Bilbo koadroa, 4. solairu 1. 943 83 12 12 taberna-jantetxea-kafetegia

Faroeko bakailaoa
daukagu
ITSAS MENDI
gutzizak
Euzko Gaureri, 5 - Tel: 943 24 07 74 - Orrio

ITZALA
kartelak jokatzen
aproposki
tel. 943 83 12 51

HANDIK ETA HEMENDIK

“

Behin jasota horrek berak eman dit indarra eta gehiago nahi nuen, eta azkenean lau jaso ditut. Bosgarren jasoaldia ere gertu izan dut, ia lortuta nuen, baina harriak ihes egin dit, eta ez da posible izan.”

IDOIA ETXEBERRIA

Harri-jasotzailea
Gara
2009/09/28

“Ttakun elkartekoek egoskor ekin zioten ni konbentzitzeari, eta horrela sortu da liburua. Eskerrak eman behar dizkiet honetan aritu diren lagun guztie.”

PATXI ETXEBERRIA

Bertsolaria
Berria
2009/09/25

OSPAKIZUNA



Olatz eta Eneko

Olatz Elustondo Saltxipi baserriko alaba eta KARKARAKO langile izandakoa irailaren 26an ezkondu zen Itziarren Eneko Etxabe trikitilariarekin. 11 urteren ondoren Enekok konbentzitu du neska laguna, eta lortu du berarekin ezkontzea.

12:30ean hasi zen elizkizuna Itziarren, eta ondoren bazkaria bertako Salegi jatetxean egin zuten. Gaueko 23:00etan atera ziren jatetxetik autobusa hartu eta etxera hurbiltzeko.

Zorionak eta muxu pila.

ZORIONAK!



Herriko gazte koadrilei

Aurtengo Gazte Festak arrakastatsuak izan dira eta, iaz bezala, gazte mordoia ibili da parte hartzen hiru egunetan ekitaldietan.

Antolatzaileek lan handia egin behar izan dute; baina oraingo honetan bereziki zoriondu nahi ditugu herriko gazteak, erakutsi duten jarrera alai eta prestuagatik.

Bai kontzertuetan, bai baltsa-karreran, bai herri-bazkarian eta haren aurreko paella-lehiaketan gazte koadrilak buru-belarri ibili dira eta giro aparta jarri dute herrian.

Gaztetxearen aldarrikapena bide onetik joango da gero ere horrelako gazte jendearekin.

agirresarobe+elizondoarkitektura

Obra eta proiektuak

obra berrien proiektuak • informak-
erretornak eta erresabilitazioak • obran
direktzioa • gremio koordinakuntza

borja agirresarobe llopelegi tel.: 635 731 722

ASADOR
XIXARIO

Faskin Eratorien Kalea, 2
Tel. 943 830019 - ORIO



telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

araztegia
MIRANDA

larina, eta, teilu, eskalera...
behar diren arrots lanak
egino dituzkugu

Udazketa bidet. 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Ibil Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
fax: 943 85 57 52
e-mail: zaldia.zaldua@allianz.es

OROIMENAREN KUTXA



Txoko honetan erori ziren uretara, serenoa bezala Baionako gazteak. Bi gazte bertan ito ziren.

KARKARA

JAIOTAKOAK

- Ekaitz Lopetegi Palacios, Orion, irailaren 23an.
- Aitana Zaldúa Sanchez, Orion, irailaren 21ean.
- Malen Agirre Alonso, Orion, irailaren 20an.
- June Makazaga Beldarrain, Orion, irailaren 14an.

EZKONDUTAKOAK

- Santos Domingo Flores eta Maria del Carmen Sadaba Aragues, Orion irailaren 17an.

HILDAKOAK

- Ovidio Gorrotategi Eizagirre, Orion, irailaren 26an. 80 urte.
- Maria Lusia Intxauspe Landa, Orion, irailaren 27an. 82 urte.

Oroitzapenez betetako txokoak

Herri bateko txokoak bertakoarentzat oroitzapenez beteak dira. Bizitzako pasadizoak, gogoan gordetakoak, tokiekin lotuta agertzen zaizkigu. Txoko batzuek oroitzapenak dakartzigute; memoriak lotu egiten ditu tokiak eta gertaerak.

Orain berrogei bat urteko neguan, gauero bezala, Antonio panaderoa, atsedean hartuta, bueltatxoa ematera atera zen, serenoak lagunduta. Gaueko isiltasunean, oinez, lasai zihoazen, berriketan. Gau itxia zen. Moilan barreina kofradiaraino joan ziren, hango arkupetan barometroari begiratu, eguraldiaren pronostikoa egin eta atzera okindegi aldera abiatu ziren. Gauaren itxiak eta elkarrekiko

berriketak despistatuta, eskaileren tartean serenoa putzura erori zen. Zaratagatik konturatu zen panaderoa lagunaren galeraz. Lagunari lagundu nahi baina igerian jakin ez, nahi eta ezin. Marruz hasi zen, kofradiako jende gutzia esnatuko zuten haren marruek. Serenoak ere jakin ez igerian, baina moilaren kontra zegoen txalupa bati heldu eta hantxe egon zen, hari lotuta, harik eta oihuek esnatuta kofradiako etxetik Rafael-eta jaitsi eta tiraka lehorrera ekarri zuten arte.

Handik urte batzuetara, 1982ko irailak 11 zituen, larunbata zen, Orion estropada bezpera. Goizeko ordu biak aldera, lau gazte autoan zihoazen. Iparraldeko bi neska eta


bi mutil ziren, Ollagorra diskotekatik moila aldera zetozen. Kofradia ondoan ezkerre hartuko zuten, jakin izan balute aurrean errioa zutela. Baina gau itxia zen, behe lainoa, eta erri ertzean ez zegoen ezer, ezta baporerik ere uretan. Automobilak kurba egin gabe, aurrera egin zuen eta, serenoa bezala, ur iluntan murgildu zen. Bi neskak igeri atera ziren, mutilak bertan gelditu ziren, atera ezinik. Berehala bildu zen jendea inguruan, inork ezin izan zuen ezer egin. Amestoi abizeneko Baionako bi anai ziren.

Txoko berean, zoriona eta zoritxarra, bizitza eta heriotza, leon-kastillo.

IÑAKI ITURAIN

Eskela edo urteurrenoko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeka asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO



KOLON TXIKI

elkartetza
jaitzakua



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

GURRU ETA SUKIA | BERTSOLARIAK

Txapelketa Nagusiko finalerdietan izatea amets

Aurkezpenik ere behar ez duten bi pertsona dira Gurre eta Sukia. Aurten, lehenengo aldiz, bi oriotar izango ditugu Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusian.

Txapelketara begira nola prestatu zarete?

Sukia: Lehenik eta behin burua horretan jarri behar da. Guk, konkretuki, egin duguna, bertsotan aritzeko geratzea izan da. Geratu eta jardun. Txapelketaren joanean egingo ditugun saio ezberdinak landu eta elkarri zuzendu. Eta hor alde nabaritzen da hasten zaren momentutik hona. Horrezaz gain, etxean egin beharreko lana dago eta nik errimategia landu dut.

Gurre: Nik ez dut gehiegi prestatzen. Txapelketara fresko iristea gustatzen zait, besteetan prestatu dut eta neka neka eginda iritsi naiz. Txapelketa hiru hilabetekoa da eta astero saioen bat bada. Horrek jendeak komentarioak egitea dakar beti eta, azkenean, beti horren inguruan jartzen zabilta hilabete horietan. Uda hasieran tarteka zerbait egiten genuen, baina gauza gutxi. Eta orain, uda bukieran Xabierrek esan duen asteroko dinamikan gabiltza.

X.S.: Jardun beharra dago, bestela ez dago eta zereginik txapelketan.

I.G.: Hala da, ni azkenaldian buruari bueltak ematen ari naiz gauza tekniko batzuei: mugagabearen erabilerari, esaterako, nahiko arreta berezia jartzen ari naiz.

Tokatu zaizuen saioarekin gustura?

X.S.: Ni zozketa egunean urriaren 11 baino lehen tokatzeko gogoz nengoen. Izan ere, gure haurra egun horre-



Buru erdia ateratzen dio Xabierrek Iñakiri.

KARKARA

Zozketan urriaren 11 baino lehen kantatzea besterik ez nuen nahi, eta zortea izan dut alde horretatik
-Xabier Sukia

tan jaioko zela aurreikusitako medikuak. Berriz, urriaren 10ean izanda konforme nago, nahiago bainuen haurra jaio aurretik kantatu. Bestela, taldearekin ere gustura, zaku bereko bertsolariak gara-eta.

I.G.: Gure saioa jendearentzat ez da potentzia izan-

Gauza teknikoei bueltak ematen nabil. Mugagabearen erabilerari arreta berezia jarri diot
-Iñaki Gurrutxaga

go, baina askorako eman dezake. Zaharrena ni naiz eta galtzeko ezer ez duen jendea dut nire taldean.

Zuri Eta hitza jolas bihurtuzen saioa gidatzeak asko lagunduko zizun besteakezagutzeko?

X.S.: Bertsolaritzan lan egiteak mesede baino kalte gehiago egiten du. Nik entzun ditudan saioek askotan ez naute bete, edozein saio mota dela ere. Besteak ez ditut analizatu modu berezian.

Txapelketan, norekin jardungo zenukete ofizioki?

I.G.: Etxahun Lekuerekin gustura jardun nintzen duela lau urte eta errepikatuko nuke; bestela, Sarriegirekin gustura aritzen naiz.

X.S.: Egañarekin zortziko handian. Kar, kar. Niri Etxahunekin edota Ainhoa Agirreazaldegirekin, adibidez. Txapelketak jende berriarekin aritzeko aukera hori ematen du.

Noraino uste duzue iritsiko dela bestea?

X.S.: Iñaki finalera iristeko gai ikusten dut nik, eta orain ez esan ni iritsiko naitzenik, badakik eta ez dela horrela. Zarautzen geratu garenetan oso fresko ikusi dut, eta horrela dagoenean parean jotzen badu, urrutira irits daiteke.

I.G.: Finalean izateko moduan 10 daude, sorpresak kontuan hartu gabe. Beraz, zaila da hori egitea. Nik finalerdian izan nahi dut duela lau urteko arantza kentzeko, eta Xabi ere bertan ikusten dut. Hala pentsatuz, posible da.

X.S.: Jarrera garrantzitsua da, eta Zarautzen asko landu dugu hori; Orion, alde horretatik, akats handia izan da.

I.G.: Hori da, *hi altxa burua* edo *urduritasuna transmititzen duk* bezalakoek zuzentzeko asko laguntzen dute. Finalerdietara iritsi eta lehenengoan ondo jarduteak bigarren aukera ematen du, eta hor benetan balio duzula erakuts dezakezu. Eta hori biontzat ona litzake.

TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA - ZARAUTZ

| | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia | 05:47 | 06:17 | 06:47 | 07:17 | 07:47 | 08:17 | 08:47 | 09:47 | 10:47 | 11:47 | 12:17 | 12:47 | 13:17 | 13:47 |
| Aia-Orio | 06:11 | 06:41 | 07:11 | 07:41 | 08:11 | 08:41 | 09:11 | 10:11 | 11:11 | 12:11 | 12:41 | 13:11 | 13:41 | 14:11 |
| Zarautz | 06:19 | 06:50 | 07:20 | 07:50 | 08:20 | 08:50 | 09:20 | 10:20 | 11:20 | 12:20 | 12:50 | 13:20 | 13:50 | 14:20 |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Donostia | 14:17 | 14:47 | 15:17 | 15:47 | 16:17 | 16:47 | 17:17 | 17:47 | 18:17 | 18:47 | 19:17 | 19:47 | 20:47 | 21:47 |
| Aia-Orio | 14:41 | 15:11 | 15:41 | 16:11 | 16:41 | 17:11 | 17:41 | 18:11 | 18:41 | 19:11 | 19:41 | 20:11 | 21:11 | 22:11 |
| Zarautz | 14:50 | 15:20 | 15:50 | 16:20 | 16:50 | 17:20 | 17:50 | 18:20 | 18:50 | 19:20 | 19:50 | 20:20 | 21:20 | 22:20 |

ZARAUTZ - DONOSTIA

| | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz | 06:08 | 06:38 | 07:08 | 07:38 | 08:08 | 08:38 | 09:08 | 10:08 | 11:08 | 12:08 | 12:38 | 13:08 | 13:38 | 14:08 |
| Aia-Orio | 06:15 | 06:45 | 07:15 | 07:45 | 08:15 | 08:45 | 09:15 | 10:15 | 11:15 | 12:15 | 12:45 | 13:15 | 13:45 | 14:15 |
| Donostia | 06:39 | 07:09 | 07:39 | 08:09 | 08:39 | 09:09 | 09:39 | 10:39 | 11:39 | 12:39 | 13:09 | 13:39 | 14:09 | 14:39 |

| | | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| Zarautz | 14:38 | 15:08 | 15:38 | 16:08 | 16:38 | 17:08 | 17:38 | 18:08 | 18:38 | 19:09 | 19:38 | 20:09 | 21:09 | 22:09 | 22:38 |
| Aia-Orio | 14:45 | 15:15 | 15:45 | 16:15 | 16:45 | 17:15 | 17:45 | 18:15 | 18:45 | 19:15 | 19:45 | 20:15 | 21:15 | 22:15 | 22:45 |
| Donostia | 15:09 | 15:39 | 16:09 | 16:39 | 17:09 | 17:39 | 18:09 | 18:39 | 19:09 | 19:39 | 20:09 | 20:39 | 21:39 | 22:39 | 23:09 |

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

| Donostia | Orio | Zarautz | Zarautz | Orio | Donostia |
|----------|-------|---------|---------|-------|----------|
| 06:55 | 07:25 | 07:35 | 06:45 | 06:55 | 07:30 |
| 07:40 | 08:15 | 08:25 | 07:15 | 07:25 | 08:00 |
| 08:10 | 08:45 | 08:55 | 07:45 | 07:55 | 08:30 |
| 08:40 | 09:15 | 09:25 | 08:15 | 08:25 | 09:00 |
| 09:10 | 09:45 | | 08:45 | 08:55 | 09:30 |
| 09:40 | 10:15 | 10:25 | 09:20 | 09:30 | 10:10 |
| 10:40 | 11:15 | 11:25 | 09:45 | 09:55 | 10:30 |
| 11:40 | 12:15 | 12:25 | | 10:30 | 11:10 |
| 12:10 | 12:45 | 12:55 | 10:45 | 10:55 | 11:30 |
| 12:40 | 13:15 | 13:25 | 11:45 | 11:55 | 12:30 |
| 13:10 | 13:45 | 13:55 | 12:45 | 12:55 | 13:30 |
| 13:40 | 14:15 | 14:25 | 13:20 | 13:30 | 14:10 |
| 14:10 | 14:45 | 14:55 | 13:45 | 13:55 | 14:30 |
| 14:40 | 15:15 | 15:25 | 14:20 | 14:30 | 15:10 |
| 15:10 | 15:45 | | 14:45 | 14:55 | 15:30 |
| 15:40 | 16:15 | 16:25 | 15:20 | 15:30 | 16:10 |
| 16:40 | 17:15 | 17:25 | 15:45 | 15:55 | 16:30 |
| 17:40 | 18:15 | 18:25 | | 16:30 | 17:10 |
| 18:10 | 18:45 | | 16:45 | 16:55 | 17:30 |
| 18:40 | 19:15 | 19:25 | 17:45 | 17:55 | 18:30 |
| 19:10 | 19:45 | 19:55 | 18:45 | 18:55 | 19:30 |
| 19:40 | 20:15 | 20:25 | | 19:30 | 20:10 |
| 20:15 | 20:50 | 21:00 | 19:45 | 19:55 | 20:30 |
| 21:00 | 21:35 | 21:45 | 20:45 | 20:55 | 21:30 |
| 22:15 | 22:50 | 23:05 | 21:15 | 21:25 | 22:00 |

ASTEBURUETAN

| Donostia | Orio | Zarautz | Zarautz | Orio | Donostia |
|----------|-------|---------|---------|-------|----------|
| 08:00 | 08:35 | 08:45 | 06:45 | 06:55 | 07:30 |
| 09:00 | 09:35 | 09:45 | 07:45 | 07:55 | 08:40 |
| 10:00 | 10:35 | 10:45 | 08:45 | 08:55 | 09:40 |
| 11:00 | 11:35 | 11:45 | 09:45 | 09:55 | 10:40 |
| 12:00 | 12:35 | 12:45 | 10:45 | 10:55 | 11:40 |
| 13:00 | 13:35 | 13:45 | 11:45 | 11:55 | 12:40 |
| 14:00 | 14:35 | 14:45 | 12:45 | 12:55 | 13:40 |
| 15:00 | 15:35 | 15:45 | 13:45 | 13:55 | 14:40 |
| 16:00 | 16:35 | 16:45 | 14:45 | 14:55 | 15:40 |
| 17:00 | 17:35 | 17:45 | 15:45 | 15:55 | 16:40 |
| 18:00 | 18:35 | 18:45 | 16:45 | 16:55 | 17:40 |
| 19:00 | 19:35 | 19:45 | 17:45 | 17:55 | 18:40 |
| 20:00 | 20:35 | 20:45 | 18:45 | 18:55 | 19:40 |
| 21:00 | 21:35 | 21:45 | 19:45 | 19:55 | 20:40 |
| 22:00 | 22:35 | 22:45 | 20:45 | 20:55 | 21:40 |
| 22:30 | 23:05 | 23:15 | 21:45 | 21:55 | 22:40 |

OHARRA: lanegunetan koazko erpidun ordutako autobusak Urtebete pasatzen dira. Asteburuetan, berri, gutxiak pasatzen dira. Koazko funetako ordutak lanurtebeteko (laneguna) zerbitzuoi bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek daroma. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentzu bide daude:

www.landabus.com Tf: 943 24 01 14 sms-a 5260 zerbakia

ITSASOA

| URRIA | Itsasgora | Itsabehera | Ilargia |
|-------|-----------------|-----------------|---------|
| 02 | 04:08 eta 16:20 | 10:10 eta 22:29 | |
| 03 | 04:38 eta 16:51 | 10:40 eta 22:58 | |
| 04 | 05:07 eta 17:23 | 11:11 eta 23:28 | ☾ |
| 05 | 05:37 eta 17:56 | 11:43 eta 23:59 | |
| 06 | 06:09 eta 18:30 | 12:16 eta _____ | |
| 07 | 06:42 eta 19:07 | 00:32 eta 12:53 | |
| 08 | 08:20 eta 19:48 | 01:09 eta 13:34 | |
| 09 | 08:03 eta 20:38 | 01:50 eta 14:21 | |
| 10 | 08:57 eta 21:42 | 02:40 eta 15:20 | |
| 11 | 10:13 eta 23:11 | 03:43 eta 16:38 | ☽ |
| 12 | 11:48 eta _____ | 05:07 eta 18:11 | |
| 13 | 00:47 eta 13:14 | 06:38 eta 19:32 | |
| 14 | 01:59 eta 14:20 | 07:52 eta 20:34 | |
| 15 | 02:54 eta 15:13 | 08:49 eta 21:23 | |
| 16 | 03:40 eta 15:59 | 09:36 eta 22:06 | |

ZAINZAKO BOTIKAK



URRIA

- 2an, Etxeberria.
- 3tik 9ra, Lasa.
- 10ean eta 11n, Mutiozabal.
- 12an, Iriarte.
- 13an, Zulaika.
- 14an, G. Artiñano.
- 15an, Larrañaga.
- 16an, Mutiozabal.
- 17an eta 18an, Mutiozabal.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8
943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17
943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12
943 83 29 70 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16
943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza
943 83 09 36 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17
943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea
943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41
943 13 39 94 Zarautz

IKASTAROA

■ Ostargik eskulan eskolak emango ditu iraila amaieratik ekaina bukaera arte. Izena emateko eta klaseei buruz informazio gehiago jasotzeko Orioko Kultur Etxera deitu. Tf: 943 13 44 09.
Ordutegia: 9:00-13:00 eta 16:30-20:00

HITZALDIA

■ Urriaren 15ean Orioko kultur etxean arratsaldeko 19:00etan, bidezko merkataritzari buruzko mahaingurua. Zer den azalduko dute bideoen bidez.

IKUSKIZUNA

■ Zaldi-gurdien eta zaldien erakustaldia. Orion, urriaren 17an, 09:00etatik 20:00etara.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, urriaren 14an altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira eta Udalean nolakoak diren jakinarazi.

BERTSO SAIOAK

■ Urriaren 3an, Zestoa, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko lehen saioan kantatuko du Iñaki Gurrutzagak. Berarekin Uxue Alberdi, Miren Artetxe, Odei Barroso, Oihana Bartra

**Gazte Festen balorazioa**

Urriaren 8an, ostegunarekin, Gazte Festen balorazio bilera egingo du OKK-k, 18:30ean, kultur etxean.

Bilera irekia da eta Gazte Festetan parte hartu duten gazte koadrila guztiei, eta nahi duten herritarrei, dei egiten diete bertaratzeko, izan ere, bilera bukaeran Gazte Festetako argazkiak eta bideoak proiektatu eta datozen ekitaldietaz hitz egingo dute.

eta Jone Uria arituko dira.

■ Urriaren 10an, Leitza, Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko bigarren saioan kantatuko du Xabier Sukiak. Berarekin Ainhoa Agirreazaldegia, Ibon Ajuria, Etxahun Lekue, Iñigo Manzisidor "Mantxi" eta

Iñigo Olaetxea arituko dira.

KONTZERTUA

■ Can't Explain taldeak kontzertua emango du Markina-Xemeingo Uhagon aretoan gaueko 22:30ean, Le King Automatic talde frantziarrarekin batera.

FUTBOLA

■ Afizionatuen gorengo mailan, Orio-Mutriku, urriaren 4an, Mendibeltsen.
■ Jubenilen ohorezko mailan, Orio-Burumendi, urriaren 11an, Mendibeltsen.
■ Emakumeen jubeni-senior kategorian, Orio-Eibar C, urriaren 11an, Mendibeltsen.

ARETO FUTBOLA

■ Orioko Tabernak-Astraburuko, urriaren 3an Karela kiroldegian, arratsaldeko 18:00etan.

HERRI KIROLAK

■ *Heldu!* herri kirol taldekoen erakustaldia Usurbilgo Aginaga auzoan, urriaren 4an, arratsaldeko 18:00etan.

PODOLOGOA

■ Aian, urriaren 10ean. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44

KILOMETROAK

■ Urriaren 5ean, Donostian, Kilometroak 2009 jaia. Zerbitzu berezia jarri du Euskotrenek, igandean 09:00etatik 20:00etara orduerdi izango dira trenak Zumaia-Donostia linean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Dohainik da.

GALDUTAKOAK

■ Emakumezkoen txaketa bat aurkitu dut Arrantzale kalean. Norbaitena bada Ixarranekoengana jo.

ALOKAIRUA

■ Orion bizitzeko lekua

alokairuan hartuko nuke, bakarrik ordaintzeko modukoa. Bestela, inork erdibana bizitzeko interesa badu, biok bila genezake: bizileku@gmail.com.
■ Pisu estreinatua gabea dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 logela, bi bainu gela, garajea... 629 68 04 10

LAN BILA

■ Ekitaldietako estrukturak jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).
■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta

egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke. Zainketan esperientzia dut eta badakit sukaldean ere. Tf: 639 40 94 21.
■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.
■ Etxeko lanak egiteko emakume eskarmentuduna. 637 90 56 95 (Celestine).

BANAKAKO ESZOLAK

■ Goi Mailako Ingenieri ikasketak egiten ari naiz eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat

(matematika, fisika, kimika, etab.) Deitu: 662 48 79 64.

■ Ingenieritza teknikoko ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat. Deitu: 608 16 49 71.

SALGAI

■ Etxe berria salgai Goiko Kalean. Bi logela gehi bestea duplexean. Sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 74 25 76 (Karmele).

TAXIA

■ Taxi zerbitzu berria Orion. 608 82 78 26 (Iñaki).

